- *“Máster en Igualdad de Mujeres y Hombres”, en colaboración con la Universidad del País Vasco.*
- *Master en “Intervención en violencia contra las mujeres” en colaboración con la Universidad de Deusto.*
- *Curso “Gestión económica y género: ¿tiene sexo el dinero?”, organizado por Emakunde en el marco de los Cursos de Verano 2008 de la UPV.*
- *También se ha atendido las demandas de formación para el personal propio de Emakunde en colaboración con el IVAP y por medio de aplicaciones de autoformación.*
- *Se solicitaron y otorgaron nueve becas para la realización del Master en intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto, curos 2008-2009.*

*7.)*

- *Respecto a la promoción de políticas de igualdad en empresas y entidades se han realizado las siguientes actuaciones:*
- *Información y asesoramiento a empresas y otras*

eta beste erakunde pribatu batzuei aholkularitza eta informazioa ematea emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egiteko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduera plan bat garatzeko. Kontsultak espero baino gehiago izan dira, enpresa askok planak garatzeko betebeharra baitute estatu mailako berdintasunerako legea indarrean sartu denetik

o Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuna lortzen laguntzen duen erakunde izateko errekonozimendua lortzeko eskaerak baloratu dira, eta bost errekonozimendu aitortu dira.

o Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan enpresei eta erakundeei aholkularitza teknikoa emateko aholkularitzak homologatzeko deialdiaren inguruan informazioa eta aholkuak eman zaizkie aholkulariei. Ez da aholkularirik homologatu.

o Enpresei eta erakunde pribatuei berdintasunaren inguruko diagnostikoa eta plana egiteko aholkulari homologatua kontratatzeko enpresentzat egindako diru laguntzen deialdira hamar eskaera aurkeztu ziren. Zazpi erakunde lagundu ziren diruz, dirua agortu zelako.

o Enpresetan emakumezkoen eta gizonezkoen egoeraren diagnostikoa egiteko materiala prestatu da. Diagnostikoak egiteko jarraibideak ematen dituen Excel programa bat da. Oso baliagarria da aholkularientzat zein enpresentzat.

8.)

o Europar Batasunari dagokionez, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako Europako ekimen eta programen jarraipena egiten jarraitu dugu. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako DAPHNE programan, SOCRATES heziketa programan eta PROGRESS programan kontzentratu da batik bat egindako lana.

o Ildo beretik, Europar Batasuneko beste estatu eta eskualde batzuekin harremanetan jarri gara emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako politikak abian jartzeko. Esanguratsua da Islandiako erakundeekin izandako harremana. Hango berdintasun politikak ezagutzeko bertara bisitaldia antolatzea izan da xedea.

o Bestalde, Bruselako Euskadiko ordezkaritzarekin eta Europako Gaietarako Zuzendaritzarekin elkarlanean, Europako Batzordearen 2006-2010 berdintasunerako ibilbide orriaren, Esloveniako eta Frantziako presidentziek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta 2008an garatutako programen eta autonomia erkidegoek

*organizaciones privadas para que realicen un diagnóstico sobre la situación de mujeres y hombres y un plan de actuación dirigido a promover la igualdad de mujeres y hombres, a través de una convocatoria de subvenciones. Las consultas han incrementado nuestras expectativas, motivado por la entrada en vigor de la ley de Igualdad estatal que obliga a muchas empresas a desarrollar planes.*

o *Valoración de las solicitudes para el reconocimiento como “Entidad colaboradora de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres” y se han otorgado 5 reconocimientos.*

o *Información y asesoramiento a consultoras en relación con la convocatoria para la homologación de consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad de mujeres y hombres a empresas y entidades. No se ha homologado a ninguna consultora.*

o *Se presentaron diez solicitudes a la convocatoria de subvenciones a empresas y entidades privadas para la contratación de una consultora homologada para la realización de un diagnóstico y un plan de igualdad. Se subvencionaron siete por agotamiento del crédito.*

o *Elaboración de un material para el diagnóstico de la situación de mujeres y hombres en las empresas. Se trata de un programa Excel que facilita y establece las pautas para la elaboración de diagnósticos. Muy útil para consultoras y empresas.*

*8.)*

o *Respecto a la Unión Europea, se ha continuado realizando el seguimiento de programas e iniciativas europeas relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres. El trabajo se ha centrado especialmente en el programa DAPHNE contra la violencia hacia las mujeres, el programa de educación SOCRATES y el programa PROGRESS.*

o *En este marco, se han mantenido contactos con otros estados y regiones de la Unión Europea en relación a la puesta en marcha de políticas para la igualdad de mujeres y hombres. Destaca, en este sentido, la relación establecida con Instituciones de Isalandia para la realización de una visita de estudio para conocer las políticas en relación con la igualdad en dicho país.*

o *Por otro lado, también se ha realizado el seguimiento, en colaboración con la Delegación de Euskadi en Bruselas y la Dirección de Asuntos Europeos, de la Hoja de Ruta para la Igualdad (2006-2010) de la Comisión Europea, los programas en relación a la igualdad de mujeres y hombres de las presidencias eslovena y francesa en 2008 y la participación de las Comunidades*

Europar Batasuneko Kontseiluan izandako partaidetzaren jarraipena egin dugu.

o «KIDEITU: EAEko enplegu eta hezkuntza sistemak kalitatezkoak izateko aukera»Europako Gizarte Funtsak Equal ekimen komunitarioaren bitartez kofinantzatutako proiektua garatu dugu. Proiektuaren xedea 2005 eta 2007 urteen artean abian jarri diren enpleguko politika aktiboen hainbat jarduera pilotuetan eta horiek kudeatzen dituzten erakundeetan genero ikuspegia sartzea izan da.

o Hona hemen 2008an egindako ekintzak:

o Kideituren web gunea elikatu dugu (www.equalkideitu.org). Eskura egongo da 2008 eta 2009ko ekitaldietan, modu estatikoan bada ere.

o Emakundek, gainera, garapen taldea behar bezala koordinatzeko beharrezkoak ziren jarduera guztiak egin ditu proiektua burutu arte eta proiektua teknikoki eta administrazio aldetik ixteko egin beharreko kudeaketa lanak ere egin ditu: proiektua gauzatzearekin zerikusia zuten erakundeei informazioa eta dokumentazioa etengabe igorri zaizkie (EGIFen unitate administratzaileari, garapen taldeko kide diren erakundeei, nazioz haraindiko erakunde kideei, etab.); euskarri informatikoan eta paperean sortutako espedienteak eta dokumentazioa antolatu eta zaindu dira; taldean finantzatzeko eta lankidetzarako hitzarmenen segimendua egin eta itxi egin dira; 2008an egin beharrekoak ziren ordainketen kudeaketa eta segimendua egin dugu, gauzatze teknikoaren eta finantza mailakoaren ziurtagiriak igorri ditugu eta proiektu osoan gertatutako jasotzen duen txostena ere egin dugu.

o Zuzendaritza batzordearen eta batzorde teknikoaren azken bilerak deitu eta antolatu genituen. Gauzatze teknikoaren eta finantzarioaren balantzea egin zen, garapen taldea desegin zen eta Kideituren baitan egindako jardueren iraunkortasunezko aurreikuspenen berri eman zen.

o 2008an Egiturazko funtsen programaziorako 2000-2006 aldia itxi denez, Emakundek funts bakoitzari dagozkion segimendu batzordeetan parte hartu du, eta aldi horren harira sortu diren amaierako agirien inguruko txostenak egin ditu.

o Gainera, Europako Gizarte Funtsaren Euskal Autonomia Erkidegoko programa eragileko (3. helburua) 2000-2006 ekitaldiko erakunde eragilea Emakunde denez, Emakundek 2006an egindako jardueren urteko memoria prestatu da programa eragile horren harira. Jarduera horiek EGIFen administrazio unitateak 2008an azken ordainketa egiteko eskatutako

*Autónomas en el Consejo de la Unión Europea*

o *Se ha procedido al cierre del proyecto “KIDEITU: un horizonte para la calidad de los sistemas de empleo y formacion de la C.A. de Euskadi”, cofinanciado por el Fondo Social Europeo a través de la Iniciativa Comunitaria Equal. Este proyecto ha tenido el objetivo de incorporar la perspectiva de género en algunas actuaciones piloto de las políticas activas de empleo y en las entidades que las gestionan durante los años 2005 al 2007*

o *Concretamente, durante el año 2008 las actuaciones realizadas han sido:*

o *La alimentación final del sitio web kidetu en la dirección electrónica www.equalkideitu.org, que se mantendrá accesible, aunque estática, durante los ejercicios 2008 y 2009.*

o *Además, desde Emakunde/I.V.M. se han realizado todas las actividades necesarias para la coordinación eficaz de la Agrupación de Desarrollo hasta el final del proyecto y para la gestión del cierre técnico y administrativo del mismo: canalización permanente de información y documentación necesaria hacia las entidades implicadas en la ejecución del mismo (UAFSE, entidades socias de la Agrupación de Desarrollo, entidades socias transnacionales, etc.); organización y custodia de los expedientes y documentación generada en archivo informático y en papel; seguimiento y cierre de los convenios de cofinanciación y colaboración; gestión y seguimiento de pagos pendientes en 2008, emisión de certificaciones que incluyen informes de ejecución técnica y financiera, realización del informe final que ha recogido lo acontecido durante todo el proyecto.*

o *Convocatoria y organización de la última Junta Directiva y del último Comité Técnico que se centraron en la realización del balance de ejecución técnica y financiera, la disolución de la Agrupación de Desarrollo y la exposición de las previsiones de sostenibilidad de las actuaciones realizadas en el marco de Kideitu*

o *Dado que durante el año 2008 se ha realizado el cierre del periodo 2000-2006 de programación de los Fondos Estructurales, Emakunde ha participado en los Comités de seguimiento de cada uno de los Fondos y ha informado los documentos finales que se han generado correspondientes a dicho periodo.*

o *Además, al ser Emakunde entidad operadora del Programa Operativo Fondo Social Europeo Objetivo 3 del Pais Vasco 2000-2006, se ha elaborado la memoria anual correspondiente a las actuaciones realizadas por Emakunde durante 2006 en el marco de dicho Programa Operativo, actuaciones que se han certificado en el informe solicitado por la Unidad Administradora de FSE en el año 2008 para proceder al último pago.*

txostenean egiaztatu dira.

- Honako jarduerak egin dira 2007-2013 aldirako Europako programazio aldi berriari dagokionez:
- Europako Gizarte Funtseko erakunde eragileei zuzeneko aholkularitza eskaini zaie Euskal Autonomia Erkidegoko programa eragileko (3. helburua) 2007-2013 aldirako, generoaren ikuspuntua aintzat hartzen duten proiektuak garatzeko.
- Parte hartu dugu 2007-2013 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko EGIF programa eragilearen segimendu batzordean, 2007-2013 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko EGEF programa eragilearen segimendu batzordean eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapen iraunkorrerako planaren segimendu batzordean.
- Horrez gain, EGIF koordinatzen duen Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara EGIF 2007-2013 aldirako programa eragileko erakunde eragileekin hausnarketarako topaketak diseinatzen.

- *Con respecto al nuevo periodo de programación europea 2007-2013 las actuaciones han sido:*
- *Asesoramiento directo a las entidades operadoras del Fondo Social Europeo en el marco del Programa Operativo Objetivo 3 del Pais Vasco para el periodo 2007-2013 para el desarrollo de sus proyectos con enfoque de género.*
- *Participación en el Comité de Seguimiento del Programa Operativo F.S.E. del País Vasco 2007-2013, el Comité de Seguimiento del Programa Operativo FEDER del País Vasco 2007-2013 y el Comité de Seguimiento del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco (PDRS).*
- *Además, se ha colaborado con la Dirección de Empleo y Formación del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social de Gobierno Vasco, entidad coordinadora del FSE, en el diseño de los encuentros de reflexión con las entidades operadoras del Programa Operativo de FSE 2007-2013.*

9.)

- Emakumeen artean asoziazionismoa sustatzeko helburuari dagokionez, Emakunderen eta emakume elkarteen arteko komunikazio bitartekoa den Aholkularitza Batzordearen eta lurraldekako Aholkularitza Azpibatzordeen eta lan batzordeen bilerekin jarraitu dugu, baita hiru lurralde historikoetako emakume elkarteei informazioa, heziketa eta aholkularitza eskaintzen ere. Horrez gain, interesgarritzat jotako programak sustatu ditugu diru-laguntzen bidez.
- EAEko emakumezko alargunen elkarteak eta sareak biltzen dituen batzordearekin lanean aritu gara. Horrez gain, emakume alargunen mugimendu asoziatibo guztien arteko koordinazioa eta proiektu trukaketa erraztu dugu, baita horietan lan metodologia berriak ezartzea ere.
- Emakumezko ijitoek jabekuntzaren alorrean urratsak emateko aholkuak eta laguntza eskaini ditugu. Alor horretan, proiektuak prestatzeko eta gizarte osoari oro har eta bereziki ijitoei eta proiektu honekin lan egiten duten erakundeei zuzendutako urteko sentsibilizazio jarduerak antolatzeko laguntza eskaintzen dugu.
- Hedabideen eta elkarteen esparruan lan egingo duen batzordea sendotzeko ere lan egin dugu.
- Emakumezko etorkinei zuzendutako partaidetza eta generoaren inguruko proiektu bat sustatzeko eta sendotzeko lan egin dugu.

*9.)*

- *En relación con el objetivo referente a fomentar el asociacionismo de las mujeres, además de continuar con las reuniones de la Comisión Consultiva, cauce de comunicación establecido entre Emakunde y las asociaciones de mujeres, y las reuniones con las Subcomisiones Consultivas territoriales así como con las distintas comisiones de trabajo de cada territorio, se ha ofrecido asesoramiento, formación e información a las Asociaciones de Mujeres de los tres Territorios Históricos, al tiempo que se ha apoyado económicamente, a través de subvenciones, la realización de programas considerados de interés.*
- *Se ha trabajado en la comisión que reúne a las asociaciones y redes de mujeres viudas de la C.A.V. En este contexto se ha facilitado la coordinación entre todos los movimientos asociativos de mujeres viudas y el intercambio de proyectos, así como la aplicación de nuevas metodologías de trabajo.*
- *Se ha trabajado en el asesoramiento y apoyo dirigida a las mujeres gitanas con el fin de contribuir a su empoderamiento, en este contexto se está asesorando y apoyando en la elaboración de proyectos, organización de Jornadas de sensibilización anuales abiertas a toda la población y en especial al pueblo gitano e instituciones que colaboran con este proyecto.*
- *Se ha trabajado en la consolidación de una comisión que trabajará en el ámbito de los medios de comunicación y movimiento asociativo.*
- *Se ha trabajado en el impulso y consolidación de un proyecto de participación y género dirigido a mujeres inmigrantes.*

- Emakumeen Euskal Kontseiluaren generoaren eraginaren ebaluazio txostena prestatzen aritu gara.
- Emakunderen helburuekin bat etorriz, diru laguntzen deialdia egin da, emakumezkoak elkartzea sustatzeko eta EAEko esparru guztietan emakumezkoen parte hartzea bultzatzeko. 152 eskaera jaso ziren eta 137 diru laguntza eman ziren.
- Emakumeen partaidetza soziopolitikoa hobetzeko asmoz, emakumeen elkarteek eskualdeka eta probintziaka topaketak egitea lagundu dugu.
- Era berean, Euskal Autonomia Elkarteko hainbat emakume elkarte, udal eta gizarte eragileri bi arlotan eskaini diegu laguntza: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten hitzaldiak, mintegiak eta sentsibilizazio eta heziketa jarduerak antolatzeko, eta genero ikuspegidun herritar partaidetza sustatu eta koordinatzeko lan metodoei buruz.
- Lankidetzarako bi hitzarmen sinatu dira:
    - Euskadiko emakume enpresari, zuzendari eta profesionalen federazioarekin lankidetza hitzarmena, Bilbon azaroaren 12an, 13an eta 14an Emakumezko enpresarien XIX. biltzar iberoamerikarra antolatzeko.
    - Emakume Internazionalistak elkartearekin, 2008ko apirilean Euskadiko IV. jardunaldi feministak antolatzeko.

10.)

- Honakoetan hartu dugu parte estatu mailan:
    - Emakumearen Sektore Biltzarra, estatuarekin eta gainerako autonomia erkidegoekin batera.
    - Berdintasun Ministerioko emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako ordezkaritza bereziarekin bilerak egin ditugu, gure erkidegoari buruzko informazioa emateko.
    - Intercambia sarea, Hezkuntza Ministerioarekin.
    - Topaketa, biltzar eta trebakuntza ekintza ugaritan ere parte hartu dugu.
- Europatik berdintasunaren alorrean egindako proposamenen, ekimenen eta esperientzien jarraipena egin dugu. Batez ere, Kontseiluaren Lehendakaritzari, Berdintasunerako Europako Institutuari eta beste hainbati egin diegu segimendua.
- Nazioarteari dagokionez, NBEko Kontseilu ekonomiko eta sozialeko emakumearen izaera juridiko eta sozialaren batzordeak antolatutako saioetan parte hartu dugu. Otsailaren 25etik martxoaren 7ra egin ziren saio horiek New Yorken.
- Europatik kanpoko gobernuekin egindako

- *Se ha trabajado en la elaboración del informe de evaluación de impacto de género relativo al Consejo Vasco de las mujeres.*
- *En consonancia con los fines del Instituto, se han convocado subvenciones, por la que se regula la concesión de subvenciones para fomentar el asociacionismo y potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la CAE. Se solicitaron 152 y se otorgaron 137.*
- *Se ha apoyado la realización de Encuentros de asociaciones de mujeres a nivel territorial y comarcal con el objetivo de mejorar la participación sociopolítica de las mujeres.*
- *En la misma línea de colaboración, se ha asesorado a diferentes Asociaciones de Mujeres, Ayuntamientos y a diferentes agentes sociales de nuestra Comunidad para la organización de conferencias, seminarios y actividades de sensibilización y formación en relación con la igualdad de mujeres y hombres, así como sobre métodos de trabajo para impulsar coordinar y apoyar la participación ciudadana con enfoque de género.*
- *Se han suscrito dos convenios de colaboración:*
    - *Con la federación de Empresarias , directivas y profesionales de euskadi para la celebración del XIX Congreso iberoamericano de Mujeres Empresarias celebrado en Bilbao los días 12,13 y 14 de noviembre*
    - *Con Emakume Internazionalistak para la celebración de las IV Jornadas feministas de Euskadi en abril de 2008.*

*10.)*

- *A Nivel Estatal se ha participado en:*
    - *Conferencia Sectorial de la Mujer en colaboración con el Estado y retso de Autonomías.*
    - *Reuniones con la delagación especial contra la Violencia sobre la Mujer del Ministerio de Igualdad, dando información de nuestra Comunidad.*
    - *Red Intercambia, con el Ministerio de educación.*
    - *Asimismo, se ha participado en multitud de encuentros, congresoso y acciones formativas.*
- *A nivel europeo, se han seguido las propuestas, iniciativas y experiencias del ámbito europeo en materia de igualdad, sobre todo haciendo seguimiento a la Presidencia del consejo , instituto Europeo para la Igualdad, etc.*
- *A nivel internacional, se ha participado en las sesiones de la Comisión de Condición jurídica y social de la Mujer del Consejo económico y social de la ONU, celebradas entre el 25 de febrero y 7 de marzo en New York.*
- *En relación a la cooperación con otros gobiernos no*

lankidetzari dagokionez:

- o Txileko emakumearen zerbitzu nazionalarekin lankidetzarako memoranduma sinatu genuen 2008ko urtarrilean bi gobernuen artean esperientziak trukatzeko.
- o Ondorioz, SERNAMeko ordezkaritza Euskadin izan zen bisitan eta gure esperientziak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.
- o Argentinara bidaia instituzional bat ere egin genuen eta, han, nazioko kongresuko, Buenos Aires hiriko gobernuko, Lan Ministerioko eta Emakumezkoen Kontseilu Nazionaleko ordezkariek egin zieten harrera Emakundeko ordezkariei.

- Lankidetzarako euskal kontseiluaren eta garapenari laguntzeko funtsaren batzorde kudeatzailearen bileretan ere izan gara.

*europeos:*

- o *Se firmó con el servicio nacional de la Mujer de Chile , memorandum de colaboración para el intercambio de experiencias entre ambos gobiernos, en enero de 2008.*
- o *Fruto del mismo, una delegación del SERNAM visitó euskadi y tuvo oportunidad de conocer in situa nuestras experiencias.*
- o *Asimismo, se realizón un viaje institucional a Argentina , siendo recibida la delegación de Emakunde por represnetantes del congreso de la nación, Gobierno de la Ciudad de Buenos aires, Ministrio de Trabajo y Consejo nacional de la Mujer.*

- *Además se ha participado en las reuniones del Consejo vasco de Cooperación y en la Comisión Gestora del fondo de Cooperación al Desarrollo.*

11.)

- Dokumentazio zentroak generoarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasun politikekin zerikusia duten gaiekin lotutako funts dokumentalak eta ikus-entzunezko funtsak eskuratzen eta tratatzen jarraitu du. Aldi berean, Institutuaren barne eskariei zein kanpokoei erantzun die aholkularitza, kontsulta eta mailegu zerbitzuei esker.
- BRS programako datu baseak (monografiak, bideoak) ABSYS programa estandarrera migratzeko prozesuari ekin diogu, Jaurlaritzaren liburutegien barruan. Horretarako, datu baseetako erregistro guztiak behin-behinean kargatu ditugu erregistro horiek garbitzeko eta berrikusteko. Prozesua amaitzen denean, behin betiko kargatzea egingo dugu eta kontsultetarako, katalogaziorako eta katalogora web bidez sartzeko postuak instalatuko dira.
- 2008an burutu dugu Emakunderen kartelen funtsa digitalizatzeko prozesua. Laster, Emakunderen web orri berriaren bidez, kartel horiek kontsultatu eta deskargatu ahal izango dira.
- Emakunderen ikerketen eta argitalpenen arloan, dokumentazio zentroak Emakunderen argitalpenen datu basea prestatzeko argitalpenen teknikarekin parte hartu du, horrela, erakundearen argitalpenak, horien banaketa, eskuragarritasuna eta abar ahalik eta gehien kontrolatzeko.
- Dokumentazio zentroen eta emakumezkoen liburutegien sarean parte hartzearen ondorioz sortutako lanak egin dira; hala nola, aldizkako argitalpenen taldeko katalogoa, Emakunderen *thesaurus*a, eta kontsultak.

*11.)*

- *El Centro de Documentación ha continuado en su proceso de adquisición y tratamiento de fondos documentales y audiovisuales relativos a las diversas temáticas relacionadas con el género y con las políticas para la igualdad de mujeres y hombres. Paralelamente, ha atendido la demanda tanto interna del propio Instituto como externa dando servicio de asesoramiento y consulta en sala, así como servicio de préstamo.*
- *Se ha iniciado el proceso de migración de las bases de datos (Monografías, videos) del programa BRS al programa estándar dentro del marco de las Bibliotecas del Gobierno, ABSYS. Para ello se han cargado de forma provisional todos los registros de las Bases de Datos para llevar a cabo una depuración o revisión de dichos registros. Cuando este proceso se finalice se hará la carga definitiva y se instalarán los puestos de consulta, catalogación y el acceso al catálogo vía web.*
- *Durante el 2008 se ha finalizado el proceso de digitalización del fondo documental de carteles de Emakunde, para que a corto plazo, a través de la nueva página web de Emakunde, sea posible su consulta y descarga.*
- *Dentro del área de estudios y publicaciones de Emakunde, el Centro de Documentación ha colaborado con la técnica de publicaciones en la elaboración de una base de datos de publicaciones de Emakunde, con el fin de llevar el mayor control posible de las publicaciones del Instituto, su distribución, disponibilidad, etc.*
- *Se han llevado a cabo las labores derivadas de su participación en la Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de mujeres (elaboración del catálogo colectivo de publicaciones periódicas, Tesauro del Instituto de la Mujer, consultas, etc.*

HELBURUA

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA DEFENDATZEKO TOKIA**

1. SEKTORE PRIBATUAN GERTATZEN DIREN SEXUAGATIKO BAZTERKERIAZKO EGOERAK IKERTZEA.

2. SEKTORE PRIBATUAN BERDINTASUNAREN ETA SEXUAGATIKO BAZTERKERIARIK EZAREN PRINTZIPIOA DEFENDATZEAREN INGURUKO EGOERA, ARAUDIA ETA BALIABIDEAK HEDATZEA.

3. KOORDINAZIORAKO ETA LANKIDETZA HARREMANETARAKO MEKANISMOAK GARATZEA.

*OBJETIVO*

***DEFENSORÍA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES***

*1. INVESTIGAR SITUACIONES DE DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO EN EL SECTOR PRIVADO.*

*2. DIVULGAR LA SITUACIÓN, NORMATIVA Y RECURSOS PARA LA DEFENSA DEL PRINCIPIO DE IGUALDAD Y NO DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO EN EL SECTOR PRIVADO.*

*3. DESARROLLAR MECANISMOS DE COORDINACIÓN Y RELACIONES DE COLABORACIÓN.*

BETETZE MAILA.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak, 2008ko ekitaldirako finkatutako helburuak betez, honako ekintzak egin ditu:

1.)

- Sektore pribatuan sexuagatiko bazterkeria egoerak ikertzeko helburua betetze aldera, honakoak egin ditugu:
  - Espedienteak izapidetzeko tresna informatikoa zehaztu dugu eta hori aplikatzeko aholkulari juridikoei beharrezko trebakuntza eskaini zaie.
  - Guztira 67 eskaera jaso ditugu. 35 kontsultari eskaini zaie aholkularitza eta 17 kexa eta 15 salaketa izapidetzen lagundu dugu. Ustez sexuagatiko bazterkeria gertatu delako, 21 ikerketa prozedura abiarazi ditugu. Horietatik zazpi ofiziozkoak eta hamalau alderdietako batek hala eskatuta. Jazarpen sexistaren kasu baten ebazpena errazteko bidea ere egin dugu.
  - Lau gomendio eman ditugu sexuagatiko bazterkeria gertatu dela iritzita.
  - Bi espediente igorri dira defentsa erakundearen ikerketa lanak oztopatzeagatik.
  - Sexuagatiko bazterkeriari eta bazterkeriaren aurkako araudia betetzeari buruzko bi azterlan egin dira; bata, Genero berdintasuna hitzarmen kolektiboetan eta, bestea, Euskal Autonomia Erkidegoan elkarte gastronomikoek gizartean duten garrantzia eta eragina.

2.)

- Sektore pribatuan berdintasunaren eta sexuagatiko bazterkeriarik ezaren printzipioa defendatzearen inguruko egoera, araudia eta baliabideak hedatzeko helburuari dagokionez,

*GRADO DE CUMPLIMIENTO.*

*La Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en cumplimiento de los objetivos señalados para el ejercicio 2008, ha realizado las siguientes actuaciones:*

*1.)*

- *En relación al objetivo de Investigar situaciones de discriminación por razón de sexo en el sector privado:*
  - *Ha finalizado la definición de la herramienta informática de tramitación de expedientes y realizado la formación necesaria del personal de asesoría jurídica en la aplicación.*
  - *Ha recibido un total de 67 solicitudes, habiendo facilitado asesoramiento a 35 consultas y tramitado 17 quejas y 15 denuncias. Ha iniciado 21 procedimientos de investigación por presunta discriminación por razón de sexo, 7 de ellos de oficio y 14 a instancia de parte, y ha intervenido como cauce para facilitar la resolución en 1 caso de acoso sexista.*
  - *Ha emitido 4 recomendaciones, tras estimar que se ha producido discriminación por razón de sexo.*
  - *Ha dado traslado a 2 expedientes por obstaculización de la labor investigadora de la Defensoría.*
  - *Ha realizado dos estudios sobre la discriminación por razón de sexo y el cumplimiento de la normativa antidiscriminatoria, referidos a "La igualdad de género en los convenios colectivos" y "La relevancia e impacto social de las sociedades gastronómicas en la Comunidad Autónoma de Euskadi".*

*2.)*

- *En relación al objetivo de divulgar la situación, normativa y recursos para la defensa del principio de igualdad y no discriminación por razón de sexo en el sector privado:*

honakoak egin dira:

- Apirilean, ekainean, irailean, urrian eta azaroan, hedabideetan, prentsan eta irratian hedatzeko kanpaina bat egin dugu, defentsa erakundeari buruzko dibulgaziozko bi liburuxka prestatu ditugu eta informazioa emateko liburuxka bat berriro argitaratu dugu. Herritarrek egin dizkiguten eskaera kopurua nabarmen igo da egindako lan horri esker.
- Tratu berdintasunari, defentsa erakundeari eta horrek egiten dituen jarduerei buruzko hedapen jardueretan parte hartu dugu, hainbat hedabidetara joanda.
- 2007ko ekitaldiari dagokion urteko txostena prestatu, argitaratu eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu diogu.
- Emakumezkoak eta zuzendaritzako lanpostuak: berdintasunaren ameskeria prestatu, argitaratu eta hedatu dugu. Tratu berdintasuna bildumako lehenengo lana izan da hau.
- Genero berdintasuna hitzarmen kolektiboetan izeneko argitalpena prestatu eta argitaratu dugu.
- Genero berdintasunaren inguruko lan eskubideen gida egin eta argitaratu dugu Tratu berdintasuna bilduman.
- www.euskadi.net/defentsoria helbidean web orri bat prestatu eta argitaratu dugu Emakunderen orriaren hasierako orri gisa.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen Tratu Berdintasunerako Behatokia abian jartzeari ekin diogu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen web orrian.
- EHUko udako ikastaroen fundazioarekin eta Berdintasun Zuzendaritzarekin batera, sexuagatiko bazterkeriari eta prozedura juridikoari buruzko nazioarteko mintegia zuzendu eta antolatu dugu.
- EHUk antolatutako «Emakume eta gizonen arteko berdintasun masterrean» eskolak eman ditugu.
- Defentsa erakundearen jardunari buruzko hitzaldiak eman ditugu hainbat lan jardunalditan.

- *Ha realizado una campaña de difusión en medios de comunicación prensa y radio, elaboración de dos trípticos divulgativos de la Defensoría y reedición de un folleto informativo, durante los meses abril, junio, septiembre, octubre y noviembre con un efecto directo en el incremento de solicitudes ciudadanas recibidas.*
- *Ha participado en diversos medios de comunicación en acciones de difusión sobre la Igualdad de Trato, la Defensoría y las actuaciones que realiza.*
- *Ha elaborado, publicado y presentado el Informe Anual correspondiente al ejercicio 2007, al Parlamento Vasco.*
- *Ha elaborado, editado y difundido una publicación titulada "Las mujeres y los puestos directivos: Espejismo de la Igualdad", con la que se inicia la colección "Igualdad de Trato".*
- *Ha elaborado y editado una publicación sobre "La igualdad de género en los convenios colectivos".*
- *Ha elaborado y editado una publicación titulada "Guía de derechos laborales en materia de igualdad de género" en la colección Igualdad de Trato.*
- *Ha elaborado y publicado una página web en la dirección www.euskadi.net/defentsoria como subhome de la página de Emakunde.*
- *Ha acometido la Puesta en marcha del Observatorio de Igualdad de Trato de mujeres y hombres en el sitio web de la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*
- *Ha codirigido y co-organizado un "Seminario Internacional sobre Discriminación por razón de sexo y Procedimiento Jurídico", en colaboración con la Fundación Cursos de Verano y la Dirección de Igualdad de la UPV/EHU.*
- *Ha impartido docencia en el Master de Igualdad de Mujeres y Hombres de la UPV/EHU.*
- *Ha presentado ponencias sobre la actuación de la Defensoría en diversas jornadas de trabajo.*

3.)

- Koordinaziorako lankidetza harremanetarako mekanismoak garatzeko helburuari dagokionez, honakoak egin ditugu:
  - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, SArekin lankidetza hitzarmena sinatu dugu defentsa erakundearen informazio sistema ezartzen laguntzeko.

*3.)*

- *En relación al objetivo de desarrollar mecanismos de coordinación y relaciones de colaboración:*
  - *Ha firmado un Convenio de colaboración con la sociedad Informática del Gobierno Vasco-EJIE S.A. para dar soporte a la implantación del sistema de información de la Defensoría.*

- Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzarako akordio markoa sinatu dugu emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren eta sexuagatiko bazterkeriarik ezaren inguruko ezagutza zabaltzeko.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin koordinaziorako protokolo bat sinatu da.
- Arartekoarekin lankidetza hitzarmena sinatu da.
- EHUko udako ikastaroen fundazioarekin lankidetza hitzarmena sinatu da EHUko udako ikastaroetan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunarekin eta sexuagatiko bazterkeriarik ezarekin lotutako trebakuntza programak egiteko.
- Laneko ikuskaritzarekin batera defentsa bulegoak sexuagatiko bazterkeriarik ezaren arloan lan arloko agintariekin lankidetza gauzatzeko proposamena landu da.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Dokumentazio Judizialaren Zentroko Zuzendaritzari lankidetzan aritzeko proposamena igorri zaio.
- Defentsa erakundearekin Lituanian (Vilnius) aukera berdintasuna izan dezaten harremanetan jarri da.
- Eusko Legebiltzarreko Emakumearen eta Gazteriaren Batzordearekin batera Norvegiako berdintasunerako eta bazterkeriaren aurkako defentsa erakundearen aurkezpen bileretan parte hartu da, baita Finlandiako (Helsinki) genero berdintasunerako defentsa erakundearenetan ere.
- Islandiako (Reykjavik) unibertsitateko genero ikasketen nazioarteko zentroarekin lan harremanak finkatu dira, baita herrialde bereko Akureyriko genero berdintasunerako zentroarekin ere.
- Sindikatuekin, herritarren elkarteekin, enpresa elkarteekin, kooperatiben federazioekin eta sektore pribatuko enpresekin zein sektore publikoko hainbat erakunderekin lan bilerak egin dira.
- Kolonbiako eta Guatemalako elkarte ekintzaileen eta Txileko erakunde mailako ordezkaritza baten bisita jaso dugu.

- *Ha firmado un Acuerdo Marco de Colaboración con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea para el desarrollo del conocimiento sobre la igualdad de mujeres y hombres y la no discriminación por razón de sexo.*
- *Ha firmado un Protocolo de Coordinación con Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.*
- *Ha firmado un Acuerdo de Colaboración con la Institución del Ararteko.*
- *Ha establecido un Convenio de Colaboración con la Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU para la realización de programas formativos relacionados con la Igualdad de Mujeres y Hombres y la no discriminación por razón de sexo en el marco de los Cursos de Verano de la UPV/EHU.*
- *Ha trabajado en colaboración con la Inspección de Trabajo en una propuesta de formalización de la colaboración de la Defensoría con la autoridad laboral en materia de no discriminación por razón de sexo.*
- *Ha remitido una propuesta de colaboración a la Dirección del Centro de Documentación Judicial del Consejo General del Poder Judicial.*
- *Ha establecido contacto con la Defensoría para la Igualdad de Oportunidades de Lituania, en Vilnius.*
- *Ha organizado y participado junto con la Comisión de Mujer y Juventud del Parlamento Vasco en reuniones de presentación de la Defensoría para la igualdad y antidiscriminación de Noruega, en Oslo, y de la Defensoría para la Igualdad de Género de Finlandia, en Helsinki.*
- *Ha establecido relación de trabajo con el Centro Internacional de Estudios de Género de la Universidad de Islandia, en Reykjavik, y con el Centro para la Igualdad de Género de Islandia, en Akureyri.*
- *Ha mantenido reuniones de trabajo con sindicatos, asociaciones ciudadanas, asociaciones empresariales, federación de cooperativas y empresas del sector privado, así como entidades diversas del sector público.*
- *Ha recibido la visita de Asociaciones activistas de Colombia y Guatemala y de una delegación institucional de Chile.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>*1 - Gastos de Personal* | 1.823 | 95% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>*2 - Gastos de funcionamiento* | 3.495 | 100% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak<br>*4 - Transf. y subv. para gastos corrientes* | 1.225 | 100% |
| Inbertsio Errealak<br>*6 - Inversiones reales* | 81 | 83% |
| Finantza-Aktiboen gehikuntza<br>*8 - Aumento de activos financieros* | 5 | 23% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk<br>*3 - Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 4 | -- |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak<br>*4 - Transf. y subv. para gastos corrientes* | 6.714 | 101% |
| Ondare-Sarrerak<br>*5 - Ingresos Patrimoniales* | 3 | 96% |
| Finantza-Aktiboen Gutxitxea<br>*8 - Disminución de activos financieros* | 6 | 6 |